

EUSKADI

BASQUE COUNTRY



**2018-2020 KANPO
HARREMANETARAKO PLANA**

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. X. LEGEGINTZALDIAN ERDIETSITAKO LORPEN HANDIENAK	6
3. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA	11
4. MISIOA	11
5. HELBURU ESTRATEGIKOAK	14
5.1. 1. Helburu estrategikoa: Euskadiri eragile global baten lekua ematea.....	14
5.2. 2. Helburu estrategikoa: Euskadik Europan duen presentzia indartzea	16
5.3. 3. Helburu estrategikoa: munduan euskal interesak sustatzea	17
6. EKINTZA ILDOAK ETA EKINTZAK	20
6.1. 2018-2020 KHPren egitura: ekintza ildoak eta ekintzak	21
6.2. Ekintza ildoen eta ekintzen xehetasuna.....	22
7. KUDEAKETA EREDUA	32
7.1. Gobernantza eredia.....	32
7.2. Jarraipen sistema	33
7.3. Aurrekontua	34

1. SARRERA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia (dokumentu honetan eta aurrerantzean, Idazkaritza) Euskadiren kanpo harremanen estrategia politiko-instituzionala zehazten eta zuzentzen Lehendakariari laguntzen dion organoa da. Beraz, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren jardueretatik nazioarteko proiektzioa dutenak, modu integratu eta zeharkakoan, bultzatu eta koordinatzea dagokio, nazioarteko antolakundeekin, herrialdeekin, estatu azpiko erakundeekin alde biko eta alde anitzeko erakunde harremanak sustatuaz, nazioarteko sareen bitartez eta, berezi-bereziki, Europar Batasunaren esparruan. Halaber, Euskadik atzerriko euskal gizataldearekin dituen harremanak sustatzeko eta areagotzeko arduraduna da Idazkaritza

Arlo estrategikoan, Idazkaritzak kanpo harremanen arloan garatzen duen lana 2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia deritzanaren barruan dago (aurrerantzean, 2020rako BCE); 2014an onartzeak eta 2018an eguneratzeak Eusko Jaurlaritzako sail guztiek eta haren sektore publikoak partekatzen duen zeharkako eta inklusiozko nazioartekotze politika bat lortzea dakarte.

Esparru estrategiko horren mendean, 2014an 2014-2016 Kanpo Harremanetarako Plana abiarazi zen, horrek nazioarteko lan handia ekarri du, eta horri esker Euskadiri posizio hobea eman ahal izan zaio atzerrian, Euskadiren interesak sustatu dira nazioartean eta, azken batean, Herrialde gisa ikusgaitasun handiagoa eman zaio Europan eta munduan.

Eragiketa mailan, eta 2020rako BCEk Nazioartekotzeko Plan Sektorialeterako planteatu duen logikaren mendean, 2018-2020 Kanpo Ekintzarako Plana (aurrerantzean, 2018-2020 KEP) atzerriko erakunde harremanen mailan 2020rako BCE egikaritzeko bidea da. Nazioarteko proiektzioa duten Eusko Jaurlaritzaren ekintzak modu integratuan koordinatu eta bultzatzen ditu, eta gainerako erakundeekin batera lankidetzan jardutea sustatzen du, Euskadi eragile globala izan dadin eta munduan euskal interesak aldezteko. Hortaz, Euskadiren nazioartekotze instituzionala orientatu, bultzatu eta behatzen duen tresna da, euskal gizartearen balioak nazioarteko jokalekuan sustatzen dituenak, eta bai Eusko Jaurlaritzako sailen eta honen sektore publikoaren bai nazioarteko proiektzioa duten euskal eragileen nazioartekotzeari bidea zabaltzen diona.

2016an XI. legegintzaldia hasteak, eta munduan jazo diren aldaketa geopolitiko eta ekonomikoen indar handiak 2020rako BCE eguneratzea oinarritu dute, Euskadi nazioarteratzeko estrategiarako erreferentzia esparru izan dadin. Ikuspegi honetatik, eta euskal kanpo ekintza bideratzeko tresna gisa daukan garrantzia ikusirik, 2018-2020 aldirako Idazkaritzaren plangintza estrategikoa aurkezten da, 2020rako BCEren eguneratzean sartu diren aldaketa berrien arabera eta, ondorioz, XI. Legegintzaldiko Jaurlaritzaren Programaren ildoan.

2018-2020 KEP, gainera, Eusko Jaurlaritzaren eta honen sektore publikoaren kanpo jarduera instituzionalari eragiten dioten barne eta kanpo faktoreei buruzko hausnarketa prozesu baten emaitza da. Beraz, 2014an zehaztu ziren KHPen egitura eta edukiak balioztatu diren prozesu baten fruitu dira, eta garrantzi berezia eman zaio Idazkaritzaren zuzendaritzako eta teknikitza pertsonal guztiak parte hartzeari, egin ere inkesten, banakako bileren, lantegien eta dokumentu estrategikoen azterketaren bitartez hartu dute parte. Horren emaitza, euskal kanpo harremanen orientazio estrategikorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako tresna erabilgarri eta efiziente bat egitea izan da.

2018-2020 KHPek erantzuna ematen die Euskadi Basque Countryk nazioarteko harremanei dagokienez datozen hiru urteetan izango dituen lehentasun estrategikoei, eta, horretarako, hiru helburu estrategiko ezartzen ditu:

- (i) Euskadi eragile globalaren posizioan kokatzea.
- (ii) Euskadik Europan duen presentzia indartzea.
- (iii) Munduan euskal interesak sustatzea.

Helmuga estrategiko hori erdiesteko, ekintza sorta bat gauzatuko da Euskadi Basque Country markaren nazioarteko posizioa hobetzeko, Euskadik bere politika publikoetan NBEren Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) integratzeagatik erreferentzia aitortza lortzeko, nazioartekotze arloan adimen lehiakorra sustatzeko, Euskadik eta bere eragileek Europako erakunde eta ekinbideetan duten presentzia handitzeko, mugaz gaindiko, alde biko eta alde anitzeko harremanak sustatzeko, itun estrategikoak finkatu eta garatzeko, eta euskal gizatalde global bat eraikitzeko.

Hori guztia, 2020rako BCEn ezarritako ikuspena lortzen aurrera egitea helburu eta egitasmo dugula: "Euskadi eragile global moduan kokatu nahi da, Europaren proiektuaren eraikuntzan

espazio berekia duela, Herrialde kohesionatu, erakargarri eta lehiakorra, bere bakantasunagatik, giza garapen iraunkorraren maila handiagatik aitortua, solidarioa, munduari irekia eta atzerriko euskal komunitatearekin estu konektatua".

2. X. LEGEGINTZALDIAN ERDIETSITAKO LORPEN HANDIENAK

X. legegintzaldian martxan jarri zen Nazioartekotzeko 2020rako Basque Country Esparru Estrategiak Nazioartekotzeko Plan Sektorialak zehaztu eta onartzea jasotzen zuen kanpo harreman instituzionalen eta enpresak nazioartekotzearen kasuetarako.

Testuinguru horretan, Kanpo Harremanetarako Planak 2014az gero erakunde jarduera nazioartekotzeaz Eusko Jaurlaritzak dituen beharrei erantzuna ematen die, eta tresna modura balio du Euskadi nazioarteko testuinguruan kokatzeko eta bere interes multisektorialak atzerrian sustatzeko.

2014-2016 KHP aplikatu zen lehen hiru urtekoan Idazkaritzaren jarduera Euskadi munduan proiektatzera, kanpoan Euskadiren interes multisektorialak sustatuaz Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzera, Europa eraikitzen parte hartzera, atzerriko euskal gizataldearekin loturak sakontzera eta kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea areagotzera orientaturik egon da.

Aldi honetan, mugarri batzuk iritsi dira, eta mugarri horiek datozen urteetan jarduera aurrera eramateko oinarriak izango dira, hots, gure aktibo nagusiak. Izan ere, Euskadik atzerrian darabilen jardueraren dinamismoaren erakusgarri, horra hor Lehendakariak 57 herrialdeetako enbaxadoreekin egin dituen 80 topaketak, maila handiko 29 bisitariren harrera eta Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako, ASEANgo, Visegrádeko Taldeko, Latinoamerikako eta Arabiar ligako ordezkari diplomatikoekin egindako 7 talde bileratara joan izana. Lehendakariak atzerrira egin dituen 11 bidaia instituzionalak ere azpimarratzekoak dira, bai eta Euskadiren kontsulatu berriak irekitzea ere: Txekiar Errepublikan, Hungarian, Brasilen, Estonian, Suedian, Filipinetan, Kolonbian, Eslovenian eta Islandian.

Euskadi munduan proiektatzeari dagokionez, aldi horretan Euskadi Basque Country marka ateratzea nabarmendu beharrekoa da, Herrialdearen atzerrirako ikurra baita. Idazkaritzatik marka nazioartean sustatzeko materialak landu eta zabaldu dira (bideoak, PPT eleaniztunak

eta abar), eta, bereziki, 2015ean www.basquecountry.eus webgunea atara zen; honen bitartez markak Interneten izan lezakeen eragina handitzea bilatzen zen, markari lotutako lau eremu erabakigarritan informazio garrantzitsua emanaz: industria; turismoa; kultura eta euskara; eta kanpo harremanak. Era berean, eta "Ni Basque Country naiz" goiburuean, webgune honen barruan formulario bat sartu da, edozein eremutako antolakundeek marka atxiki ahal dezaten. Atxikita dauden erakundeak dira, hainbat esparrutako euskal erakundeez gain, diplomaziaren, ekonomiaren, hezkuntzaren, gizartearen edo teknologiaren munduko eragileak, hala nola Bilboko kidego kontsularra, Gipuzkoako, Bilboko eta Arabako merkataritza ganberak, Euskal Herriko, Deustuko eta Mondragon unibertsitateak, Agirre Lehendakaria Center for Social and Political Studies zentroa, UNESCO Etxea, Munduko Landa Eztatidagunea, Tecnalia edo Innobasque, besteak beste.

Euskadiren interes multisektorialak kanpoan sustatuaz Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzeari dagokionez, 2014-2016 aldian azpimarratzeko modukoa da Kide Estrategikoen Sarea sortu izana, Euskadiren interes berdintsuak dituzten lurralde aitzindarietako aliantzetan oinarritzen dena (Akitania, Jiangsu, Bavaria, Querétaro eta Flandria). Itun horien helburua politika publikoen ezagutzak eta ereduak elkarri ikastea, proiektu komunei ekitea, eta nazioartean jarrera bateratuak aldezte da.

Sare honen sorrera osatzeko, Idazkaritzak misio teknikoak, Learning Tours (Txile eta Mexiko) eta zuzeneko eta alderantzizko bidaia instituzionalak antolatu ditu eta horiekin lagundu du; izan ere, horri esker akordio, hitzarmen eta aditze memorandum sektorialak izenpetu ahal izan dira atzerrian lehentasunezko eskualde eta herrialdeetako gobernu eta erakundeekin, nazioarteko antolakundeekin eta nazioarteko sare eta elkarten esparruan.

Ildo horretan, lan bateratuko aukerak esploratzeko eta herritarren berrikuntza, genero berdintasuna, gazteria eta berrikuntza (enpresa txiki eta ertainak) arloetan esperientziak trukatzeko Iberoameriketako Idazkaritza Orokorrarekin 2013ko azaroan izenpetutako memorandumak azpimarratu behar dira; eta hezkuntza politikan eta hezkuntzako jokaeretan giza eskubideen zeharretarako ikuspegi bat integratzen eta demokrazia eraikitzen herritarren parte-hartzea bultzatuko duten gobernantza eredu berriak indartzeko UNESCOrekin 2016ko uztailean izenpetutakoa ere nabarmentzekoa da.

Nazioarteko sare eta elkarteetan parte hartzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Euskadiren proaktibotasuna ORU/FOGAR sarean eta kide sortzaile den Abangoardiako ekimenean; EARLALL eta EUROMONTANAn, presidentetza baitauka; CRPMn eta NPLDn, gobernantza organoetan parte hartzen baitu; eta ERRIN sarean, non manufaktura lantaldeko burutza Euskadik duen.

Atzerrian interes multisektorialak sustatzeari dagokionez ere, azpimarratzekoa da euskal erakundeek nazioarteko ekitaldi garrantzitsuetan hartu dutela parte, hala nola Europaren Periferiako eta Itsasaldeko Eskualdeen Konferentziako (CRPM) Arku Atlantikoko Batzordearen Batzar Orokorrean, 2015ean Bilbon; Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Konbentzioko (COP21) Kideen Konferentzian, Parisen 2015ean egin zen hartan; edo Eskualde Gobernuen Munduko VII. Gailurrean, Rio de Janeiron 2016an, Euskadiri jokabide onei esker sari bi eman zizkieten hartan: "Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria" argitalpenagatik eta "Haurren Garapenaren Jarraipen Protokoloa Eskola Eremuan" protokoloagatik. Sari horiek lehenagotik ere Nazio Batuen Erakundeak 2015ean Eusko Jaurlaritzari eman zaizkionen gainera etorri ziren, modalitate bitan: EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundeak genero ikuspegiaren sustapenari, eta herritarrek IREKIA atariaren bitartez erabaki politikoetan mekanismo berritzaileen bidez parte-hartzearen sustapenari.

Bestalde, eta Europaren 2014-2016 aldian egin diren ekintza garrantzitsuen artean, Europako lobby politiko-instituzionalak gauzatu duen jarduera trinkoa nabarmendu behar da, euskal erakundeen ordezkariak eta EBko presidenteorde eta komisarioak maila gorenean biltzea zuzendu baitu eta, bereziki, Lehendakariak X. legegintzaldian izan dituen bilerak egitea ahalbidetu baitu, hots, José Manuel Durão Barroso Europako Batzordearen presidentearekin, Cecilia Malmström Barne Arazoetarako Europako komisarioarekin, Herman Van Rompuy Kontseiluburuarekin eta Markku Markkula Europako Eskualdeen Lantaldeko presidentearekin.

Europaren esparruan azpimarratzekoa da euskal eragileek EBren ekinbide eta programetan parte hartzeari lagundu izana; besteak beste, nabarmendu egiten dira Horizonte 2020 programa I+G+b-ren eremuan, INTERREG programa eskualde arteko lankidetzaren arloan, LIFE programa ingurumenarekin zerikusia duten proiektuetarako, edo Creative Europe programa kultura arloan. Lan hori berriazko ekintza sektorialekin osatu da, esate baterako, Donostia

2016an Europako Kultura Hiriburu izateko hautagaitzari laguntzea, espezializazio adimentsuaren eskualde estrategiak zabaltzen Euskadi erreferentzia bilakarazten laguntzea, euskal lanbide heziketa enplegu sorrera sustatzeko tresna gisa proiektatzea, eta itsasandiko aplikazio energetikoetan eta aurkako inguruneetan Euskadiren aitzindaritzza bultzatzea.

Europako testuinguruan jarraiturik, eta berariaz mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan, Pirinioetako Lan Elkartean, Arku Atlantikoaren Batzordean eta, bereziki, 2014 eta 2016 bitartean Akitania-Euskadi euroeskualdeko Lurralde Lankidetzarako Europako Taldean (AECT) Euskadi presidentetzan zela euskaldunok egindako lana. Garrantzia eman behar zaio, gainera, Nafarroa euroeskualdean sartu izanari, hain zuzen, 2016ko ekitaldi berezi batean eta Iñigo Urkullu lehendakaria eta Alain Rousset Akitania Berriko Eskualde Kontseiluko presidentea buru zirela.

Atzerriko euskal komunitateekiko harremanei dagokienez, 2016ko uztailean *Basque Global Network* Interneteko sare soziala osatzen duten pertsonak konektatzearen sortu zen, euren arteko eta euskal erakundeekiko interakzioa errazte aldera, eta sareko lana bideratzeko topagune bat eratu zen.

2014-2016 hiru urtekoan zehar Euskal Etxeek sustatutako 6.000 ekintza baino gehiago lagundu dira; 64 gaztek Gaztemundu programan hartu dute parte eta 3 Euskal Etxe berri ireki dira Munich, Marseilla eta Montpellier/Jacoun. Muturreko premian zeuden euskal gizataldeko familia unitateei 300 laguntza inguru eman zaizkie eta 50 itzultze kasu baino gehiago artatu dira.

Gainera, "*Diasporizatu!*" goiburupean, Kanpoko Euskal Gizataldeen VI. Biltzarra egin zen 2015eko urrian Gasteizen. Atera ziren ondorioetatik sortu zen 2016-2019 lau urterako Erakundearen Ekintza Plana, Euskadiko gizartearen eta atzerriko euskal komunitatearen arteko harremanak estutzeko, KHP honetan egoki islatuta geratuko denez.

Azkenik, eta kanpo harremanetarako eraginkortasunari eta kalitateari laguntzen dion elementu integratzailea denez, 2016an Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua sortu izana azpimarratu behar da. Horrela, bada, euskal nazioartekotze politikiei buruzko eztabaida bultzatzeko eragile sozial eta ekonomikoei irekita zegoen eztabaidagune bat jarri zen martxan, Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea, Kanpo Harremanetarako Erakunde

arteko Batzordea eta Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea osatzen zuena Euskadiren kanpo harremanen jarraipena eta gobernantza lana egiteko.

3. MISIOA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagokio Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanen plangintza, laguntza eta koordinazioa, apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuaren arabera. Premisa horien mendean, Idazkaritza Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpo harremanen estrategia politiko-instituzionala zehazten eta zuzentzen Lehendakariari laguntzeaz arduratuko da. Horretarako, Idazkaritza hiru norabidetan (Kanpo Harremanen Zuzendaritza, Europako Gaien Zuzendaritza eta Atzerriko Euskal Komunitaterako Zuzendaritza) eta Euskadiren interes orokorretarako puntu estrategikoetako ordezkari sare batean egituratzen da: Ameriketako Estatu Batuak; Mexiko; Argentina-Mercosur; Txile, Kolonia eta Peru; eta Europar Batasuna, eta horiei Madrilgo bulego bat gehitzen zaie.

Ematen zaizkion egituraren, eginkizunen eta eskumenen ondorioz, eta 2020rako BCEren esparruan, Idazkaritzari dagokio Euskadiren Kanpo Harremanetarako Plana martxan jartzea eta egikaritzea, bere ekintzak misio honetan oinarrituz:

Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanak programatu, bultzatu eta koordinatzea, Euskadiri, Europaren proiektua eraikitzen, espazio propioa duen eragile global baten lekua emateko, eta euskal interesak munduan sustatzeko. Horretarako, Euskadiren erakunde ordezkaria izango da eta itun estrategikoak egingo ditu nazioarteko eragileekin, atzerriko euskal komunitatearekiko harremanak estutuko ditu, eta Euskal gizarteak 2030 Agendarekin duen konpromisoa proiektatuko du.

2020rako BCEn ezarritako ikuspegiarekin koherentea den misio bat da, eta, funtsean, 2014ko KHPren agindua jarraitzen du. Hala ere, 2018-2020 aldiaren bereziki eragongo zaien hiru faktore giltzarri berri sartu dira. Lehenik eta behin, aipamen berezia egiten zaio Euskadik Europaren proiektuan eta etorkizunean izan behar duen protagonismoari, euskal kanpo harremanen lehentasunezko langunea delako eta 2020rako BCEren ikuspenaren ildotik. Bigarrenik, itun estrategikoaren kontzeptua sartzen da Euskadik nazioarteko antolakunde, herrialde eta eskualde batzuekin izan nahi dituen lehentasunezko harremanak sendotzeko, eta sareetan parte hartzea indartzeko. Azkenik, eta hirugarren lekuan, Nazio Batuen 2030 Agendan ezarritako Garapen Iraunkorreko Helburuekin euskal gizarteak duen konpromisoa sustatzeari berariazko aipamena egiten zaio.

4. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanen Plan berri bat egite aldera, hausnarketa bat egin da 2020rako Nazioartekotzeko Euskadi Basque Country Esparru Estrategia Eguneratzea erreferentziatzko kontzeptu esparrutzat hartuta; eguneratzeko, beste aldetik, XI. legegintzaldirako Gobernu Programan ezarritako jarraibideak, Euskal Herriko Garapen Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua, Garapen Iraunkorrerako NBERen 2030erako Agenda eta Europa 2020 Estrategia hartu dira abiapuntutzat. Hausnarketa prozesu parte-hartzaile honetatik sortu da 2018-2020 aldirako KHP ezartzen duen ikuspegi estrategikoa, Idazkaritzaren jarduera 2020 urtera arte gidatuko duten orientabideak sartzen dituena.

2018-2020 KHP hiru giltzarritan oinarritzen da: zeharkakotasuna, optimizazioa eta efizientzia. Ikuspegi holistiko eta inklusiozko baten bitartez, zeharkako plan bat sortu da, eta plan horretan Idazkaritzaren egitura guztiak laguntzen du planteatutako ekintza ildoak lortzen. Paraleloan, helburuen, ekintza ildoen eta ekintzen optimizazioa nagusi den plan bat egin da, egitura arina duena, jardueraren jarraipena eta erregistroa errazteko.

Halaber, 2018-2020 KHPk ikuspegi eta orientabide berriak sartzen ditu, 2014-2016 aldiran erdietsitako lorpen eta mugarriak kontuan hartzen dituztenak horien gainean datozen urteetarako plangintza oinarritzeko, eta nazioarteko testuinguru geopolitikoak eskaintzen dituen aukerak eta erronkak ere kontuan hartzen dituztenak, Euskadi ez baitago horietatik kanpo atzerrian erakundeena lana egiterakoan.

Premisa horien mendean, "Euskadi Basque Country" markaren protagonismo handiagoa bilatzen da, bai strategiari dagokionez bai marka edukiz hornitzeari, zabaltzeari eta atxikipenak erakartzeari dagokionez, Euskadi munduan proiektatzeko ikus nagusia izango den Herrialde-markaren inguruan borondateaz bilduz.

Alde biko eta alde anitzeko erakunde harremanak nazioartean euskal interesak atzerrian aldezteko eta laguntzeko giltzarri dira, bereziki 2020rako BCEk Euskadi nazioartekotzeko eremu geografiko estrategikotzat jotzen dituen herrialde eta eskualde guztietan. Funtsezkoa da, beraz, erakunde harremanetan ikuspegi orokor batetik sakontzen jarraitzea, harreman horiek aliantza estrategikoak ezartzen hezurmamitzeko apustu eginaz, hau da, lotura

egonkor eta sendoak nazioarteko organismoekin, lehenasunezko herrialde eta eskualdeekin, eta sare sektorial garrantzitsuekin.

Europaren barruan, Europako Erkidegoaren esparrua lehenasunezkoa izaten jarraitzen du eta berebiziko garrantzia duena euskal atzerri harremanetarako. Horregatik eragoten zaio Euskadik Europaren proiektuan parte hartzea sustatzeari, berehalako etorkizunean erronka handien testuingurua biziko baitugu, besteak beste, Erresuma Batuak Europar Batasuna utziko duelako eta Europaren Etorkizunari buruzko Liburu Zuriak irekitako hausnarketa prozesuagatik.

Atzerriko euskal komunitatearekiko harremanek, bestalde, euskal kanpo harremanak eraikitzeko oinarri garrantzitsuetako bat izaten jarraitzen dute. Ildo horretan, noranzko bikoia izatea garrantzitsua da, hau da euskal gizataldeak dauden herrialdeetan euskal gizatalde horien bidez Euskadi ezagutaraztea ez ezik, Euskadin euskal diaspora ezagutzea eta balioztatzea ere bai.

Beste alde batetik, euskal gizarteak Nazio Batuen 2030 Agendan planteatutako Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) duen konpromisoak Euskadi munduan sustatzeko tresna ahaltzu bat ematen die kanpo harremanei. Horrela, nazioarteko lan eremu berri bat irekitzen du, Euskadiri atzerrian erreferentziazko Herrialdearen lekua ematea bilatzen duena bere politika publikoetan helburu horiek sartzen, zabaltzen eta sentsibilizatzen.

Azkenik garrantzi berezia ematen zaio erakundeen barruan eta gizartean nazioarteko harremanen eta nazioartekotzearen arloan adimen lehiakorra sustatzeari, Euskadiren kanpo harremanen bikaintasuna eta arrakasta lortzeko oinarri delako.

5. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Misioak esplizituki esaten du "Euskadiri, Europaren proiektua eraikitzen, espazio propioa duen eragile global baten lekua emateko, eta euskal interesak munduan sustatzeko" helburua dutela euskal kanpo harremanek. Agindu argi eta zuzen horretatik eratortzen dira 2018-2020 KHPn zehazten diren hiru helburuak:

- **1. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskadiri eragile global baten lekua ematea**
- **2. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskadik Europan duen presentzia indartzea**
- **3. HELBURU ESTRATEGIKOA: Munduan euskal interesak sustatzea**

Helburu horiek, gainera, 2020rako BCEn ezartzen diren nazioartekotze bektore komunei, 2017ko otsailean Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako XI. legegintzaldirako Kanpo Harremanen Ekintza Ildo Orokorrei eta Idazkaritzari emandako eginkizunei egokitzen zaizkie.

5.1. 1. Helburu estrategikoa: Euskadiri eragile global baten lekua ematea

Euskadi Herrialde erakargarri eta lehiakor gisa, berezitasun eta identitate propioa aitortzen zaiona, eta erronka globalekin konpromiso handia duen herrialde gisa atzerrian proiektatzea funtsezkoa da nazioarteko testuinguruan pisu handiagoa eta leku egokia irabazteko. Horrek guztiak eragimen globala handitzen eta proiektuak, inbertsioak, bisitariak, talentua eta giza kapitala erakartzen laguntzen du.

Helburu hori lortzeko lehen zutabea nazioartean Euskadiren lehiarako abantaila diren euskal gizartearen indarguneak, berezitasunak, balioak eta dohainak proiektatuko dituen Herrialde-marka adostu baten zabalkundea egitea da. Ikuspegi horretatik, Idazkaritzak "Euskadi Basque Country" markaren inguruan borondateak eta ekinbideak batzea bilatuko du, bere egituran oinarrituta eta eragile publiko eta pribatuen lankidetzarekin, Herrialde-marka maila globalean komunikatzen eta zabaltzen lagunduko duten jarduerak bultzatzeko.

2020rako BCEren lehen bektorearen arabera, "Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea" alegia, beharrezkoa da, gainera, markak erakunde eremua gainditzea eta

komunikatzeko eta saltzeko tresna propiotzat hartzea, bai nazioarteko jarduera garatzen duten euskal eragileen ekosistemak bai euskal gizarteak oro har. Idazkaritzak, beraz, markarekiko atxikimenduak bilatzen mugiarazle lana egingo du, eta horrek estilo eta dohain homogeneousak dituen Herrialde-irudi baten proiektzioa areagotzen lagunduko du, Euskadiren erakarpen indar globala handitze aldera.

Euskadik munduan posizio ona optimizatzeko beste zutabeetako bat Nazio Batuen 2030 Agendarekin euskal gizarteak duen konpromisoaren nazioarteko proiektzioa da, 2020rako BCEren hirugarren sektorearen arabera, hots, "Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea". 2015eko irailean onartutako NBEren 2030 Agendak Garapen Iraunkorreko 17 Helburu (GIH) eta ekonomia, gizartea eta ingurumena hartzen dituzten 169 jomuga ditu. Helburu horiek onartzea eta, ondorioz, etorkizuneko belaunaldientzat bake, oparotasun eta ongizate bermeen sorrera ahalbidetuko duten planeta babesteko estrategiak garatzearekin konpromisoa hartzea erabakitzen duten gobernuen politikak gidatuko dituzte helburu horiek datorren hamarkadan.

Konpromiso unibertsal bat da, beraz; baina lurralde ikuspegi markatu bat duena; izan ere, gobernu orok egokitu baititzake bere baliabide, ekintza eta helburuak aurre egin behar dien berariazko erronken arabera. Ildo horretan, GIH erakunde maila guztietan integratzen nazioarteko erreferentzia bihurtzeko egingo du lan Euskadik. Horretarako, Idazkaritzak modu bateratu eta koordinatuan egingo du lan, inplikaturako eragile publiko eta pribatu guztiekin itunak sortuz, eta hiru eginkizun nagusi berarentzat hartuz: nazioartean jokabide onak ikastea, Euskadin GIH maila anitzetan eta sektore anitzetan zabaltzea eta Euskadi Basque Country 2030 Agenda nazioartean proiektatzea.

Azkenik, eta 2020rako BCEren bosgarren sektorearen arabera, hau da, "Ezagutza biltzea", nazioartekotze arloan adimen lehiakorra sustatzea giltzarri da kanpo harremanen bitartez Euskadiren nazioarteko posizioa etengabe hobetzea lortzeko. Horrela, eta nazioarteko harremanen esparruan ezagutza bultzatuaz, bai erakundeetan bai gizartean, Euskadi nazioartekotzeari zuzenean eragiten dioten gaietan balio estrategikoko informazioa lortu ahal izango da, eta horrek etorkizunean kanpo harremanen zehazkizunak eta norabidea egokitzen lagunduko du. Horretarako, eta lurraldeek garrantzia eta lidergoa lortzearen lehian dabiltzan testuinguru batean, nazioarteko harremanen arloko euskal expertise guztia

indartu eta konektatuko da, eta gizartea eta eragile sozioekonomikoak kontzientziatuko dira euren nazioartekotze lana bultzatzeko eskura dituzten tresnez.

5.2. 2. Helburu estrategikoa: Euskadik Europan duen presentzia indartzea

Europaren proiektua euskal kanpo harremanen lehentasunezko langunea izan da tradizioz. Horregatik, Europaren eraikuntzaren parte-hartzaile kide eta erantzule kide gisa lekua hartzen jarraitzeak eta Euskadik Europan duen presentzia eta eragimena hedatzeak, ikuspegi politiko, multisektorial eta publiko-pribatu batetik, lehentasuna izaten jarraituko du.

Europar Batasunak, "aniztasunean bat eginik" dagoen lurralde baten elementu kohesio-emailea denez, eta Europako herrien garapen sozial eta ekonomikorako plataforma denez, datorren hamarkadan aldaketa askoko garaia biziko du, Erromako Itunaren 60 urte bete berri diren honetan.

Besteak beste, Europaren proiektu komuneke aldaketa hauek Erresuma Batuak EB uzteak ekarriko ditu, eta horrek gainerako herrialdeetan merkataritzan, erakundeetan, aurrekontuan edo gizarte arloan gerta daitezkeen eraginak moteltzeko mekanismoak ezartzea eskatuko du.

Beste erronka garrantzitsu bat datorren hamarkadan Europar Batasunaren etorkizuna gidatuko duten oinarri estrategikoen gaineko hausnarketa prozesu bat martxan jartzea da. Horretara, eta Europaren etorkizunari buruzko Liburu Zuriaren bitartez, datorren hamarkadan EBren ikuspena, gobernantza eta etorkizun estrategikoa erabakitzeko prozesua ireki da, etorkizuneko bost jokaleku posibleren bitartez: orain arte bezala jarraitzetik, Europa federalean sakontzeraino, arlo guztietan eskumen, baliabide eta erabaki gehiago elkarrekin harturik.

Erronka horien aurrean, berehalako etorkizunean, eta 2020rako BCEren 4. bektorearen arabera, hots, "Europaren proiektuari laguntzea", Euskadik lehentasunik handiena emango dio Europako erakundeetan zuzenean parte hartzeari. Horrela Erkidegoaren

eztabaidaguneetan parte hartzea bultzatuko da, bere intereseko eta eskumeneko kontuak eztabaidatzen diren lekuan pisua, protagonismoa eta ahotsa irabazteko: bereziki Europar Kontseiluaren osieran, Batzordearen lantaldeenean eta Eskualdeen lantaldearen barruan.

Era berean, Euskadik bere ekarpena prestatuko du EBren etorkizunari buruzko hausnarketaren inguruan, subsidiariorotasun eta proportzio printzipioetan oinarritutako maila anitzeko gobernantzaren garapenari lehentasuna ematearen alde, legegintza eskumenak dauzkaten eta errealitate nazionalak osatzen dituzten eskualdeek Europako erakundeek jokalekuan parte-hartze aktiboa izan dezatela bultzatuaz.

Bestalde, Euskadik Europan behar duen rola indartzeko bide osagarri gisa, Idazkaritza bultzadarako plataforma izango da euskal eragile sozioekonomikoek Europako ekinbide, programa eta proiektuetan parte hartzeko, sentsibilizazio ekintzen, aholkularitzaren, laguntasuna ematearen eta bermatzearen bitartez, horiek Erkidegoaren giroan txertatzeak Euskadik Europan duen eragina eta aitortza handitu dezaten.

5.3. 3. Helburu estrategikoa: munduan euskal interesak sustatzea

Nazioarteko harremanen egitura gogor, egonkor eta iraunkor bat garatu eta mantentzeak euskal gizartearen interesak atzerrian babestea ahalbidetuko du. Horretarako, funtsezkoa da alde biko eta alde anitzeko harremanak areagotu eta finkatzea, nazioarteko organismoekin eta lehentasunezko eskualde eta herrialdeekin itun egonkorak garatu eta indartzea eta Euskadirako estrategikoak diren nazioarteko sareetan presentzia handitzea. Gainera, atzerriko euskal komunitatea indartu eta laguntzeak, euskal balioak munduan sustatu eta zabaltzeko lehentasunezko aliatua baita, haiek dauden gizarteetan euskal interesak sustatzeko helburuari modu erabakigarrian laguntzen dio.

Euskadik atzerrian duen lidergo eta eraginaren parterik handiena atzerriko gobernu eta erakundeekin harremana instituzionala edukiaz lortzen eta hezurmamitzen da. Harreman horiek, gainera, atzerrian nazioartekotzeko prozesuetan bai herri erakundeei bai erakunde pribatuei laguntzea eta bultzada ematea ahalbidetzen dute, eta giltzarri dira euskal interes

sektorialak nazioartean bultzatzeko, 2020rako BCEren bigarren bektorearen arabera, hau da, "Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea".

2020rako BCEk, gainera, Euskadi nazioarteratzeko eremu geografiko estrategikotzat identifikatzen ditu zenbait herrialde eta eskualde. Euskaldunok atzerrian ditugun interesen parte handi bat erakartzen duten lurraldeak dira, eta lehentasunezko arreta jasoko dute 2018-2020 aldian.

Horregatik, Idazkaritzak esfortzuak batuko ditu atzerriko gobernu eta erakunde publikoekin harreman instituzionalak areagotzeko Euskadiren errealitate multisektoriala atzerrian proiektatze aldera eta arlo askotan garrantzi globaleko gaietan duen jarrera proiektatze aldera. Horrekin, eta 2020rako BCEren bosgarren bektorearen arabera ("Ezagutza biltzea"), euskal antolakunde publiko eta pribatuetan jokabide onak txertatzea ahalbidetuko duten aukerak detektatzen eta tresnak garatzen lagunduko da, gainera.

Bestalde, arreta berezia emango zaie Euskadirako lehentasunezko zat jotzen diren nazioarteko organismoei, herrialdeei, estatu azpiko erakundeei eta sareei, harreman sendo eta egonkorak ehuntzen jarraitzeko asmoz. Horrela, bada, eta nazioarteko antolakundeen barruko solaskidetza zuzenaren eta interakzioaren bitartez, lehentasunezko eskualde eta herrialdeekiko akordioak sustatuaz eta Euskadiren eta honen eragileen partaidetza nazioarteko sareetan handituaz, euskal gizartearen interesak atzerrian aldeztu lagunduko da.

Aipamen berezia merezi du Kide Estrategikoen Sarearen barruko elkarlanak, sendotu egin beharko baita, alde batetik, Euskadik dituen interes berak dituzten eta arlo estrategikoetan lidergoa duten gobernuarekin aliantza berriak eginaz, eta, beste aldetik, eduki sektorial eta/edo aldizkakoak aplikaturik dagoeneko izenpetuta dauden akordioak indartuaz, harremanak denboran luze irautekoak izan daitezen, eta alde bietarako aberasgarriak.

Horren osagarri, mugaz gaindiko elkarlana eta lurralde elkarlana Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen barruan, Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoarekin, eta Pirinioetako Lan Elkartearen esparruan lankidetzan arituaz gauzatuko da. Bere garrantzia estrategikoagatik, egingako inbertsioengatik, lotura historiko, kultural eta geografikoengatik, euroeskualdearen kasua nabarmentzen da, bere ekintzak 2014-2020rako Plan Estrategikoaren barruan sartzen

dira, eta lau lehentasun ezartzen ditu Planak: euroeskualdeko herritarrak, ezagutzaren ekonomia, lurralde iraunkorra eta gobernantza irekia.

Euskal gizartearen eta beraren erakundeen atzerriko harremanak sustatu eta areagotzeak jarraituko du berez lehentasun bat izaten Idazkaritzarako, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legean ondo markatuta dagoenez. Paraleloan, ezin da ukatu atzerriko euskal komunitatea, aldi berean, presentzia duen lekuetan euskal interesak zabaltzeko, sustatzeko eta bultzatzeko elementu erabakigarria dela. Ondorioz, Idazkaritzak, Euskal Gizataldeetarako Euskal Gizataldeetarako Erakunde Ekintzako Lau Urteko Plana (2016-2019) egin eta koordinatu duena denez eta 2015eko Euskal Gizataldeen IV. Mundu Biltzarraren "*Diasporizatu!*" goiburuarekin bat eginda, noranzko bitan egingo du lan: alde batetik, Euskadik atzerriko euskal komunitatearekin dituen harremanak laguntzen eta sakontzen, Euskal Etxeen sarearen bitartez diaspora tradizionala indartuz eta XXI. mendeko diaspora berriaren beharrak identifikatuz; eta, beste aldetik, euskal gizarte osoa diasporak euskal kultura eta balioak nazioartean zabaltzen egin duen ekarpen handiaz ohartarazten.

6. EKINTZA ILDOAK ETA EKINTZAK

2018-2020 KHP 2020rako BCEn aurreikusitako nazioartekotzeko plan sektorialen barruan kokatzen da, eta, beraz, Estrategiak zehazten dituen nazioartekotzeko bektore estrategikoen egikaritze estrategikoarekin lerrotzen da:

- **1. bektorea: Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea**
- **2. bektorea: Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea**
- **3. bektorea: Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea**
- **4. bektorea: Europaren proiektuari laguntzea**
- **5. bektorea: Ezagutza biltzea**

2018-2020 KHPren misiotik ateratzen diren hiru 2020rako BCEren nazioartekotzeko bost bektoreekin estu-estu erlazionatutako zortzi ekintza ildotan garatzen dira, ondoren adierazten den bezala. Ekintza ildo hauek, aldi berean, hogeita hamabost ekintzatan konkretatzen dira, hain zuzen, Idazkaritzak 2018-2020 hiru urteko aldirako daukan jardueraren gunea osatzen dutenak izaki.

2018-2020 KHPren ekintza ildoen erlazioa 2020rako BCEren bektoreekin

2018-2020 KHP		2020rako BCE (2018-2020) BEKTOREAK
HELBURUA	EKINTZA ILDOA	
1. EUSKADI ERAGILE GLOBALAREN POSIZIOAN KOKATZEA	EI.1.1 Euskadi Basque Country marka zabaltzea	B1/B2
	EI.1.2 2030 Agenda Euskadin aplikaraztea	B3
	EI.1.3 nazioartekotze arloan adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea	B5
2. EUSKADIK EUROPA DUEAN PRESENTZIA INDARTZEA	EI.2.1 EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren parte-hartzea bultzatzea	B4
	EI.2.2 EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen parte-hartzea bideratzea	B2/B4
3. MUNDUAN EUSKAL INTERESAK SUSTATZEA	EI.3.1 Atzerriko euskal interes sektorialak bultzatzea	B2
	EI.3.2 Itun estrategikoak garatu eta finkatzea	B2/B3/B4
	EI.3.3 Euskal gizartea diasporizatzea eta atzerriko euskal komunitatea indartzea	B1/B2

6.1. 2018-2020 KHPren egitura: ekintza ildoak eta ekintzak

HELBURUAK	1. HELBURUA: EUSKADIRI ERAGILE GLOBAL BATEN LEKUA EMATEA			2. HELBURUA: EUSKADIK EUROPAN DUEN PRESENTZIA INDARTZEA		3. HELBURUA: MUNDUAN EUSKAL INTERESAK SUSTATZEA							
EKINTZA ILDOAK	EI1.1. EUSKADI BASQUE COUNTRY MARKA ZABALTZEA	EI1.2. 2030 AGENDA EUSKADIN APLIKARAZTEA	EI1.3. NAZIOARTEKOTZE ARLOAN ADIMEN LEHIAKORRA ETA EZAGUTZA SUSTATZEA	EI2.1 EB-REN ERABAKITZE PROZESUETAN EUSKADIREN PARTE-HARTZEA BULTZATZEA	EI2.2 EB-REN PROIEKTU ETA EKINBIDEETAN EUSKAL ERAGILEEN PARTE-HARTZEA BIDERATZEA	EI3.1 ATZERRIKO EUSKAL INTERES SEKTORIALAK BULTZATZEA	EI3.2 ITUN ESTRATEGIKOAK GARATU ETA FINKATZEA	EI3.3 EUSKAL GIZARTEA DIASPORIZATZEA ETA ATZERRIKO EUSKAL KOMUNITATEA INDARTZEA					
EKINTZAK	1.1.1 Antolatutako marka ekintzak	1.2.1 Sentsibilizazioa, prestakuntza eta zabalkundea Euskadin	1.3.1 Pertsonal teknikoaren nazioarteko mugikortasun programa	2.1.1 Euskadiren interesak bultzatzeko EBren organo eta erakundeetan parte hartzea	2.2.1 Europaren eraikuntzari eta Euskadin duen eraginari buruzko ekintzak	3.1.1 Euskadi barruko eta kanpoko erakunde harremanak	3.2.1 Nazioarteko antolakundeekiko lankidetzak	3.3.1 Euskal Etxeen sarea finkatzea					
	1.1.2 Euskal Etxeek bultzatutako marka ekintzak								1.2.2 Erakunde, eragile eta sareekiko itunak	1.3.2 Think tanks eta nazioarteko harremanetan espezializatutako eztabaidaguneekiko harremanak	2.1.2 Euskadiri EBren etorkizunean lekua aurkitzea	2.2.2 Eragileek Europako proiektu eta ekimenetan parte hartzeari laguntzea	3.1.2 Nazioarteko liderrekiko harremanak
	1.1.3 Euskadi Basque Country Eguna	1.2.3 Euskadi Basque Country 2030 Agenda nazioartean sustatzea	1.3.3 Nazioarteko harremanen arloko ezagutza sarea	2.1.3 Euskadik Brexiten aurrean dituen interesak	2.2.2 Eragileek Europako proiektu eta ekimenetan parte hartzeari laguntzea	3.1.3 Ordezkaritza diplomatikoezko harremanak	3.2.3 Kide Estrategikoen Sarearekiko harremanak	3.3.3 Euskadin diasporari buruzko ezaupidea sustatzea					
	1.1.4 Euskadi Basque Country Laguna								1.3.4 Kanpo harremanetarako bekak	2.1.4 Europako gaiei buruz Estatuarekiko harremanak	3.1.4 Diplomazia publikoko ekintzak	3.2.4 Mugaz gaindiko elkarlana eta lurralde elkarlana	3.3.4 Atzerriko euskal komunitatearentzako arreta
	1.1.5 Marka sustatzeko Euskadi Basque Country funtsa								1.3.5 Euskal kanpo harremanak	3.1.5 Atzerrian nazioartekotzeko proiektuei laguntzea	3.2.5 Nazioarteko sareetako presentzia	3.2.6 Sorospen teknikoko proiektuen laguntza ildoak	
	1.1.6 Euskal expertisea atzerrian proiektatzea												

6.2. Ekintza ildoen eta ekintzen xehetasuna

HELBURUAK

01



EUSKADIRI ERAGILE GLOBAL
BATEN LEKUA EMATEA

02



EUSKADIK EUROPAN DUEN
PRESENTZIA INDARTZEA

03



MUNDUAN EUSKAL
INTERESAK SUSTATZEA

→ 1.1 EKINTZA ILDOA

Euskadi Basque Country marka zabaltea

Nazioartean euskal gizartearen indarguneak, balioak eta dohain positiboak adostuta eta lankidetzaren publiko-privatuen sustatzea. Euskadi Basque Country marka hil edo biziko elementu gisa finkatu behar da Euskadik eragile globalaren posizioan sinergia positiboak sortzeko, bai eta lurralde markari lotuaz euskal eragileen nazioartekotzeko estrategiak eta proiektuak errazteko ere, batez ere lehentasunezko eskualde eta herrialdeetan. Hori guztia, Euskadik nazioarteko publikoarentzat daukan erakargarritasuna handitzeko: bereziki, atzerriko herritarrentzat eta talentuarentzat, turista eta bisitarientzat, eta munduko politika, ekonomia, kultura, gizarte edo zientzia arloan giltzarri diren eragileentzat.

Helburu horrekin, bai Euskadin bai atzerrian marka eta markari lotutako euskal expertise guztia proiektatzeko ekintzak garatzea bultzatu eta erraztuko da, bai idazkaritzak motu propio antolatuta bai beste beste eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan antolatuta. Garrantzi berezia emango zaio beste erakunde eta eragile batzuk Herrialde-markari atxikitzeari, bere berme eta biderkatzaile izan ahal daitezen, elkarrekin erabili ahal izateko mekanismoak sortuz.

⚙️ EKINTZAK

1.1.1 Antolatutako marka ekintzak	Euskadi Basque Country markaren inguruan borondateak eta ekimenak biltzea, maila globalean markaren zabalkundearen eragiten duten ekintzak antolatzeko edo ko-antolatzeko. Jarraia horiek idazkaritzak bultzatuko ditu bai Euskadin bai atzerrian.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Idazkaritzak antolatutako marka ekintza kopurua</i>	60
1.1.2 Euskal Etxeek bultzatutako marka ekintzak	Euskal Etxeak dauden herrialdeetan Euskadi Basque Country marka erabiltzen den jarduerak bultzatzea, horrela atzerriko euskal komunitatearen atxikimendua sustatuaz markarekiko.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Bultzatutako marka ekintza kopurua</i>	250
1.1.3 Euskadi Basque Country Eguna	Euskadin urtero nazioarteko jardunaldi bat antolatzea adierarik zabalenean, euskal erakundeek eta atzerrikoek, eragile ekonomiko eta sozialek, eta nazioarteko harremanen munduan ospetsuak diren pertsonen parte hartuko dutena. Horren guztiaren helburua nazioartekotzeko sinergiak sustatzea, jokabide onak elkarri irakastea eta, batez ere, markaren zabalkundearen egin eta atxikimenduak sustatzea izango da.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Euskadi Basque Country Egunaren ospakizun kopurua</i>	3
1.1.4 Euskadi Basque Country Laguna	Euskadiren zabalkundearen egin eta Euskadi ezagutarazten egin duten ekarpenagatik nabarmendu diren euskaldunei eta atzerriarrei emateko erakundearen aitortza bat sortzea.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Euskadi Basque Country Laguna izendatu diren pertsona ospetsuen kopurua</i>	30
1.1.5 Marka sustatzeko Euskadi Basque Country funtsa	Markaren irudia nazioartean areagotzen laguntzen duten ikuspegi multisektorialeko zeharkako ekitaldi eta proiektuak bultzatzeko sailarteko funts bat sortzea.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Funtsa sortzea</i>	1

1.1.6 Euskal expertise atzerrian proiektatzea	Euskadin garatutako jokabide onak eta euskal <i>expertise</i> guztia zabaltzen diren ekitaldi eta plataformetan euskal eragile publiko eta pribatuak parte hartzea bultzatu eta erraztea, horrela atzerrian Euskadiren irudiari lotutako balio positiboak proiektatzen laguntzeko.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Euskal partaidetzarekin expertisea zabaltzen duten nazioarteko ekitaldi kopurua</i>	25

HELBURUAK



01
EUSKADIRI ERAGILE GLOBAL
BATEN LEKUA EMATEA



02
EUSKADIK EUROPA DUEAN
PRESENTZIA INDARTZEA



03
MUNDUAN EUSKAL
INTERESAK SUSTATZEA

→ 1.2 EKINTZA ILDOA

2030 Agenda Euskadin aplikaraztea

Euskadi NBERen 2030 Agendako Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) politika publikoetan integratzen erreferentzia bihurtzea, kontuan hartuta 2030 urterako ezarri diren jomugak egokitu eta aplikatzerakoan kasu honetan Nazio Batuetatik lurraldetasunari ematen zaion garrantzia.

Idazkaritzak GIH arloan nazioartean jokabide onak erakartzeko lana egingo du, eta, Lehendakariaren Idazkaritzarekin batean, euskal politika publikoan Euskadiren kasu konkretura aplikatu daitezkeen helburuen integrazioa erraztuko du. Horretarako, GIH ikusgaitasuna zabalduko du Jaurlaritzaren barruan eta Jaurlaritzaren erakundeetan, eta inplikaturik dauden eragile guztiak sentsibilizatuko ditu maila anitzeko ikuspegi batetik eta publiko eta pribatua batera hartuz, Euskadi Basque Country 2030 Agenda bata lortzarren. Gainera, zeharkako eragileak erakarriko ditu eta GIH helburuen eztabaidan euskal gizarte sektore guztien ordezkariak sartzera bultzatuko ditu (enpresa, hezkuntza, osasuna eta abar). GIH helburuak politika publikoetan sartu ondoren, Euskadiren Agenda propio hori halaber nazioartean zabaltzeko ahalegina egingo da, eredugarritzat har dadin eta beste herrialde eta eskualde batzuentzat nazioarteko erreferentzia izan dadin.

🔗 EKINTZAK

1.2.1 Sentsibilizazioa, prestakuntza eta zabalkundea Euskadin	Euskal gizarte osatzen duten eragile guztiek 2030 Agendaz jabetu daitezkeen bultzatzea, eta horretarako komunikazio kanpainak, jardunaldien, prestakuntza saioen bitartez eta zabalkunderako materiala eta abar landuz Agenda ezagutarazteko ahalegina egingo da. Berariaz, Euskadi Basque Country 2030 Agenda landuko da Nazio Batuen ildotik.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Idazkaritza partaide den sentsibilizazio, prestakuntza eta zabalkunde ekintza kopurua</i>	20
1.2.2 Erakunde, eragile eta sareekiko itunak	Garapenerako lankidetzak garatzea eta euskal eta atzerri erakunde eta gobernuekin eta eragile publiko eta pribatuekin itunak indartzea, eta sareetan parte hartzea, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren inguruan harreman sare bat lortzeko, Agendaren aldeko itun bat ehunten eta jokabide onak ikasten joan ahal izatearren.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartzea</i>	1
	<i>2030 Agendaren aldeko itunkide kopurua</i>	50
1.2.3 Euskadi Basque Country 2030 Agenda nazioartean sustatzea	Euskadi Basque Country 2030 Agenda nazioartean zabaltzea Euskadiren atzerriko posizioa eta jokaleku globaleko desfioekin duen konpromisoa ziurtatzeko.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Euskadi Basque Country 2030 Agenda zabaltzen den nazioarteko ekitaldi kopurua</i>	12

HELBURUAK



01
EUSKADIRI ERAGILE GLOBAL
BATEN LEKUA EMATEA



02
EUSKADIK EUROPAN DUEN
PRESENTZIA INDARTZEA



03
MUNDUAN EUSKAL
INTERESAK SUSTATZEA

→ 1.3 EKINTZA ILDOA **Nazioartekotze arloan adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea**

Erakundeetan eta gizartearen nazioarteko harremani buruzko ezagutza bultzatzea. Horrela euskal kanpo harremanak egiten orokorrean, eta Euskadi nazioartean leku onean kokatzen bereziki, positiboki eragiten duten arlo estrategikoetan informazio baliotsua lortuko da.

Asmo hori betetze aldera, Idazkaritzak bai euskal administrazioari pertsonalak bai lanbidez eremu honetan jarduteko potentziala duten gazteek nazioarteko prestakuntza jasotzea sustatu eta bultzatuko du. Prestakuntzaren aldeko apustu honek Euskadiren etorkizuneko nazioarteko posizioan positiboki eragingo du.

Paraleloan, nazioarteko harremanen arloan informazio estrategikoa lortzea bultzatuko da bereziki bide biren bitartez: Euskadin akademiaren munduan dagoen eremu honetako jakinduria guztia balioztatuz eta konektatuz, eta mundu guztiko ideia laborategi eta ikerketa eta iritzi zentroekin harremanak sustatuz.

🔗 EKINTZAK

1.3.1 Pertsonal teknikoaren nazioarteko mugikortasun programa	Erakundeen barruan nazioartekotzearen eta nazioarteko harremanen arloko ezagutza sustatzea, atzerriko antolakunde eta gobernuetara joateko pertsonal teknikoaren nazioarteko mugikortasun programa bat diseinatuaz.	Adierazlea	Jomuga
		<i>Programa sortzea</i>	1
1.3.2 <i>Think tanks</i> eta nazioarteko harremanetan espezializatutako eztabaidaguneeen harremanak	Atzerriko ideia laborategi eta iritzi eztabaidaguneeen interakzioak bultzatu eta sustatzea, bereziki nazioarteko harremanen eta munduko geopolitikaren eremuan, arlo honetan abangoardiakoak diren pentsamendu joerekin konektatuta jarraitzeko.	Adierazlea	Jomuga
		<i>Ekinbide bateratuen kopurua</i>	8
1.3.3 Nazioarteko harremanen arloko ezagutza sarea	Nazioarteko harremanen arloan euskal mundu akademikoan dauden gaitasunak eta ezagutzea balioztatuz eta konektatuz (ikerketa zentroak, unibertsitateak, erakundeak), sareko lana hobetzeko, eremu honetan lankidetzak areagotuz eta sinergia positiboak sortuz.	Adierazlea	Jomuga
		<i>Sarea sortzeko esplorazio azterlana</i>	1
1.3.4 Kanpo harremanetarako beka	Kanpo Harremanetarako Beka programa berraztertu eta behar berrietara egokitzea, deialdi erakargarriago eta uneko giroari egokituago baten bitartez talentu gehiago eta hobe erakartzeko.	Adierazlea	Jomuga
		<i>Esleitutako beka kopurua</i>	36
1.3.5 Euskal kanpo harremanak gizarteratzea	Nazioartekotzeko euskal ekosistemako eragile guztiek izaten dituzten kanpo harremanen ezaugarriak eta intentsitatea euskal gizarteak hobeto ezagut dituzan jarduerak bultzatu eta egitea.	Adierazlea	Jomuga
		<i>Kanpo harremanak euskal gizarteari komunikatzeko jardura kopurua</i>	15

HELBURUAK



01
EUSKADIRI ERAGILE GLOBAL
BATEN LEKUA EMATEA



02
EUSKADIK EUROPAN DUEN
PRESENTZIA INDARTZEA



03
MUNDUAN EUSKAL
INTERESAK SUSTATZEA

→ 2.1 EKINTZA ILDOA	EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren parte-hartzea bultzatzea	
<p>Lehentasunezko eta berezko ekintza eremua denez, Euskadik Europar Batasunaren erabakitze prozesuetan presentzia izaten jarraitu behar du, bere interes bai globalak bai sektorialak aldezteko bere zeregina eta partaidetza handituz.</p> <p>Horrela, Idazkaritzak esfortzuak bateratuko ditu Euskadik Europan ahots ozenagoa izan dezan eta bere intereseko eta eskumeneko gaiak erabakitzen diren Erkidegoaren erakundeetan edo euskal eragile sozioekonomikoei euren jarduera garatzen eragiten dieten ekinbide eta politikak erabakitzen direnetan ordezkari handitu dezan Herrialde moduan.</p> <p>Konkretuki EBren barruan aldaketak gertatzen ari diren giro honetan, arreta berezia jarriko zaie datozen urteetan planteatuko diren erronkei: alde batetik, Europaren Etorbizunari buruzko Liburu Zuriaren aurrean Herrialde modura jarrera bat eduki beharra, eta Eusko Jaurlaritzak horretaz duen ikuspegia dokumentu batean jasoko du; eta beste aldetik, Erresuma Batua EBtik irteteko den honetan Euskadiren interesak aldezte.</p>		
🔗 EKINTZAK		
2.1.1 Euskadiren interesak bultzatzeko EBren organo eta erakundeetan parte hartzea	Erkidegoaren erakundeetan Euskadiren parte-hartze proaktiboa bultzatzen jarraitzea, bereziki EBren Kontseiluaren osakeretan, Europar Batzordearen lantalde teknikoetan eta Eskualdeen lantaldean.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Koordinatutako EB Kontseilu kopurua eta parte hartu den lantalde teknikoaren kopurua</i>	31
2.1.2 Euskadiri EBren etorkizunean lekua aurkitzea	Datozen urteetan EBren bilakaera markatuko duten erronken aurrean Europako lobby politiko-instituzionalaren bidez Euskadiren zeregina handitzea eta beraren posizioa bultzatzea, maila goreneko jardunaldi eta bilerak bezalako jardueren bitartez.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>EBren etorkizunari buruzko euskal ikuspena lantzea</i>	1
	<i>EBren etorkizunari buruzko euskal ikuspena sustatzen den jarduera kopurua</i>	9
2.1.3 Euskadik Brexiten aurrean dituen interesak	Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko prozesuaren aurrean Euskadiren interes multisektorialak aldezte.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Brexitaren Jarraipen Batzordearen bilera kopurua eta horri buruz eztabaidaguneetan emandako hitzaldi kopurua</i>	12
2.1.4 Europako gaiei buruz Estatuarekiko harremanak	Estatuarekiko solaskidetza bultzatzea, berariaz Europako gaien arloko alde biko batzordea eta Ebarekin zerikusia duten gaiei buruzko autonomia erkidegoen konferentzia berraktibatze.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Alde biko batzordearen bilera kopurua eta Europar Batasunarekin zerikusia duten gaietarako konferentziaren bilera kopurua</i>	13

HELBURUAK



EUSKADIRI ERAGILE GLOBAL
BATEN LEKUA EMATEA



EUSKADIK EUROPAN DUEN
PRESENTZIA INDARTZEA



MUNDUAN EUSKAL
INTERESAK SUSTATZEA

→ 2.2 EKINTZA ILDOA		EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen parte-hartzea bideratzea	
<p>Europaren euskal expertise guztia proiektatzea eta ezagutza, informazioa eta jokabide onak ikastea eremu estrategikoetan, euskal eragile sozioekonomiko bai publiko bai pribatuek Europar Batasunetik martxan jartzen diren nazioez gaindiko ekinbide sektorialetan parte hartuaz.</p> <p>Lan hori aurrera eramatearren, Idazkaritzak euskarri eta plataforma lana egingo du euskal eragileek Erkidegoaren ekinbide eta programa horietan duten partaidetza handitu ahal dezaten, berariazko sektoreetan sortutako aukera berriei buruzko informazioa emateko eta zabalkunderako jarduerak antolatu eta sustatuaz. Halaber eta modu paraleloan, ekinbide horietan irispidea izateko laguntza eta aholkularitza pertsonalizatua bultzatzen jarraituko da, Europaren euskal eragileen presentzia areagotze aldera, gainera sinergia positiboak eta lankidetzak eta elkarlan posibilitateak sorraraziaz, eta, hortaz, Euskadik EBn duen zeregina indartuaz ikuspegi multisektorialetik ekinda.</p>			
🔗 EKINTZAK			
2.2.1 Europaren eraikuntzari eta Euskadin duen eraginari buruzko ekintzak	Europaren eraikuntzaz eta EBren programek, ekinbideek eta politikek euskal gizartean eta eragile sozioekonomikoetan duten eraginaz zabalkunde, informazio eta sentsibilizazio jarduerak sustatzea.		
	Adierazlea		Jomuga
	<i>Europaren eraikuntzaz antolatutako ekitaldi kopurua</i>		9
	<i>EBren programei, ekinbideei eta politikei buruzko txosten kopurua</i>		50
2.2.2 Eragileek Europako proiektu eta ekimenetan parte hartzeari laguntzea	Euskal eragile publiko eta pribatuei aholkua eta laguntza ematea EBren proiektuetan eta ekinbideetan parte har dezaten.		
	Adierazlea		Jomuga
	<i>Europaren esparruan lagundutako proiektu eta ekimen kopurua</i>		150

HELBURUAK



01
EUSKADIRI ERAGILE GLOBAL
BATEN LEKUA EMATEA



02
EUSKADIK EUROPAN DUEN
PRESENTZIA INDARTZEA



03
MUNDUAN EUSKAL
INTERESAK SUSTATZEA

→ 3.1 EKINTZA ILDOA

Atzerriko euskal interes sektorialak bultzatzea

Alde biko harremanetan sakontzen duten erakunde ekintzen bidez kanpoan presentzia irabaztea, bai eta nazioartean jokabide onak esportatzen eta euskal interes sektorialak aldeztu eragiten duten diplomazia publikoko ekintzen bidez ere.

Ikuspegi multisektorial baten mendean, Idazkaritzak, bere zuzendaritzen eta atzerrian dituen ordezkari bidez, ezagutza eta jokabide onak trukatzeko bultzatuko du, eta euskal eragileei leku geografiko estrategikoetan nazioartekotzeko dituzten proiektuetan lagunduko die. Horretarako, Euskadik orain duen nazioarteko erakunde harremanen egitura finkatu, mantendu eta handituko du, bidaia ofizialak, misio teknikoak, learning tours, ordezkari diplomatikoen topaketak eta diplomazia publikoko jarduerak bultzatu eta antolatuz, giltzarri baitira Euskadiren interes sektorialak nazioartean bultzatzeko.

EKINTZAK

3.1.1 Euskadi barruko eta kanpoko erakunde harremanak	Erakunde harremanak Euskadi barruan eta kanpoan bultzatzea, noranzko biko erakunde bidaien bitartez, zubiak eta itunak ehuntzeko eta aukerak aurretiaz detektatzeko tresna baita.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Idazkaritzak edo bere lankidetzaz antolatutako atzerriko bidaia instituzionalen kopurua</i>	55
3.1.2 Nazioarteko liderrekiko harremanak	Atzerrian ardura postuak edo kargu garrantzitsuak dituzten pertsona ospetsuekiko harremanak bultzatzea, euskal gizartearen errealitatea ezagut dezaten.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Antolatuko Learning Tours kopurua</i>	5
3.1.3 Ordezkaritza diplomatikoen harremanak	Euskadi barruan eta kanpoan ordezkari diplomatikoen harremanak sendotzea (enbaxadak eta kontsulatuak), euskal interesak mila globalean aldeztzeko tresna baitira.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Lehendakariak ordezkari diplomatikoen egindako topaketa kopurua</i>	50
	<i>Gorputz diplomatikoen ordezkariekin antolatutako gosari, topaketa eta langune kopurua</i>	30
3.1.4 Diplomazia publikoko ekintzak	Atzerrian diplomazia publikoko ekintzak bultzatzea, eragimena eta ospea irabazte aldera, elkarlanerako ekintzak, kultura, zientzia eta sare sozialak, besteak beste, bide direla.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Atzerrian egindako diplomazia publikoko ekintza kopurua</i>	18
3.1.5 Atzerrian nazioartekotzeko proiektuei laguntzea	Euskal erakunde edo eragileak aitzindari dituzten arlo tematikoetan nazioartekotzeko proiektuak martxan jartzeko laguntza ematea eta horretan lagun egitea.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Lagundutako nazioartekotzeko proiektu kopurua</i>	60

HELBURUAK



EUSKADIRI ERAGILE GLOBAL BATEN LEKUA EMATEA



EUSKADIK EUROPAN DUEN PRESENTZIA INDARTZEA



MUNDUAN EUSKAL INTERESAK SUSTATZEA

→ 3.2 EKINTZA ILDOA **Itun estrategikoak garatu eta finkatzea**

Nazioarteko antolakundeekin, lehentasunezko herrialdeekin eta Kide Estrategikoen Sareko estatu azpiko erakundeekin lehentasunezko harreman estrategikoak mantendu eta indartzea, eta nazioarteko sareetako presentzia areagotzea, Euskadik nazioarteko erabakiguneetan duen eragina finkatu eta handitze aldera, eta euskal interesak sustatze aldera, bereziki 2020rako BCEn Euskadi nazioarteratzeko lehentasuna ematen zaien eremu geografikoetan.

Itun estrategikoek izaera berezia dute Idazkaritzaren lanaren barruan, Euskadiren atzerriko erakunde estrategia aurrera eramateko funtsezko oinarriak dira eta. Horregatik, bereziki eragongo zaio eragile hauekiko elkarlana eta elkarrekintza sustatzeari: alde batetik, nazioarteko sareetan presentzia izateak eta nazioarteko antolakundeekin akordioak egiteak erabakigune garrantzitsuetan ahotsa irabazteko aukera ematen dute, eta estatuekin eta estatu azpiko erakundeekin harreman berriak ezartzeko izaera biderkatzailea dute; eta, beste aldetik, lehentasunezko eskualde eta herrialdeekiko akordioak hedatzeak eta finkatzeak maila orokorrean eta/edo sektorialean estrategikotzat jotzen diren zona geografikoetan Euskadik Herrialde moduan dituen interesak zabaltu eta sustatzea ahalbidetzen du.

EKINTZAK

3.2.1 Nazioarteko antolakundeekiko lankidetzak	Akordioak martxan jarriaz, eta dagoeneko izenpetuta dauden konpromisoak dinamizatuaz, nazioarteko antolakundeekiko lankidetzan sakontzea.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Nazioarteko antolakundeekiko ekinbide bateratuen kopurua</i>	12
3.2.2 Lehentasunezko herrialdeekiko harremanak	2020rako BCEn lehentasuna ematen zaien herrialdeetako erakundeekin akordio sektorialak edo multisektorialak bultzatzea.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Lehentasunezko herrialdeetako gobernu edo erakundeekiko ekinbide bateratuen kopurua</i>	25
3.2.3 Kide Estrategikoen Sarearekiko harremanak	Proiektu konkretuetan esparru akordioak hezurmamituaz Kide Estrategikoen Sarea finkatzea. Dagoeneko ezarrita dauden itunak berariazko eduki sektorialez hornitzera bideratuta joango dira esfortzuak, eta berariaz interesgarri diren kide berriekin Sarearen kide kopurua gehiagotzera ere bai.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Kide Estrategikoen Sarearen barruko ekinbide bateratuen kopurua</i>	20
3.2.4 Mugaz gaindiko elkarlana eta lurralde elkarlana	Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen esparruan, Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoarekin eta Pirinioetako Lan Elkartearen barruan jardura indartzea. Era berean, lurralde elkarlaneko eta eskualde arteko elkarlaneko ekinbideak martxan jartzea, bereziki Europaren esparruan.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Elkarrekin hasitako mugaz gaindiko eta eskualde arteko ekinbide eta proiektu kopurua</i>	15
3.2.5 Nazioarteko sareetako presentzia	Nazioarteko sare sektorialetan Jaurlaritzaren sailen eta euskal eragile publiko eta pribatuen presentzia sustatu eta areagotzea.	
	Adierazlea	Jomuga
	<i>Identifikatutako sare sektorial berrien kopurua</i>	5
	<i>Sareen gobernantza organoetako partaidetza kopurua</i>	25
3.2.6 Sorospen teknikoko proiektuen laguntza ildoak	Atzerrian eskualde, herrialde eta antolakunde estrategikoekin elkarlan teknikoko proiektuak bultzatu eta sustatzeko laguntza ildo publiko-pribatua sortzea.	
	Adierazlea	Jomuga

HELBURUAK



EUSKADIRI ERAGILE GLOBAL BATEN LEKUA EMATEA



EUSKADIK EUROPAN DUEN PRESENTZIA INDARTZEA



MUNDUAN EUSKAL INTERESAK SUSTATZEA

→ 3.3 EKINTZA ILDOA		Euskal gizartea diasporizatzea eta atzerriko euskal komunitatea indartzea	
<p>Euskal Gizataldeen VI. Mundu Biltzarretik eta "Diasporizatu!" goiburupean sortutako Erakunde Ekintzako Lau Urteko Planean oinarri hartuta, Idazkaritzak noranzko bitan egingo du lan: atzerriko euskal komunitatearekiko harremanak estutuaz, presentzia duten gizarteetan Euskadiren interesak sustatzeko elementu estrategiko eta lehentasunekoak baita; eta Euskadiko diasporari buruzko ezagutza bultzatuaz, euskal identitatea eta kultura munduan zabaltzeko jokatzeko ari den rola goraipatzeko.</p> <p>Horrela, eta alde batetik, atzerriko euskal komunitatearekiko arreta eta harremana handitu egingo da, bai diaspora tradizionala osatzen dutenekin Euskal Etxeak finkatuaz, bai XXI. mendeko diaspora berriarekin, horien beharrak identifikatu eta balioetsi ondoren erantzuna emango baitzaie. Bestalde, "Diasporizatu!" goiburuarekin koherentzia bete-betekoan, Euskadiko diasporari buruzko ezagutza sustatzeari ekingo zaio, atzerriko euskal komunitateek Euskadi Herralde gisa nazioartean proiektatzen ari diren ekarpen eta laguntza historikoaz euskal gizarte garaikidea kontziente izan dadin zabalkunde ekintzak eginaz.</p>			
🌐 EKINTZAK			
3.3.1 Euskal Etxeen sarea finkatzea	Euskal Etxeen sarea finkatzeari bultzada ematea, haien jarduera eta funtzionamendua sustatuaz, bereziki haiek IKTetara gehitzeari esker, horren ondorioz bai euskal erakundeekin bai sarearen beraren barruan komunikazio hobekak izate aldera.	Adierazlea	Jomuga
	<i>Diru laguntzen bidez lagundutako Euskal Etxeen jarduera kopurua</i>		2000
	<i>Egoitza elektronikoaren bidez izapidetutako espediente kopurua</i>		600
3.3.2 XXI. mendeko euskal komunitatea	Euskal komunitate globala eraikitzen aurrera egitea, XXI. mendeko emigrante profil berriaren berariazko beharrak identifikatuaz: profil berri honetarako sektore publikotik laguntza eta berme mekanismo berriak ezarri, diaspora berriaren eta diaspora tradizionalaren arteko eragin-truke eta komunikazio elementu gisa Basque Global Network Sarea indartuaz, eta Gaztemundu programan gazteek parte hartzea bultzatuaz, izan ere zuzendaritza taldeen belaunaldi txanda berritzen baitu eta bazkide aktiboen multzoa gaztetu egiten baitu Euskal Etxeetan.	Adierazlea	Jomuga
	<i>Gaztemundu programan parte hartzen dutenen kopurua</i>		45
	<i>Basque Global Network sarea erabiltzen dutenen kopurua</i>		2000
3.3.3 Euskadin diasporari buruzko ezaupidea sustatzea	Euskadin diaspora ezagutzeko ekinbideak bultzatzea, Diaspora Eguna eta Euskal Diasporaren Artxiboa, esate baterako.	Adierazlea	Jomuga
	<i>Ikerketa eta zabalkunde ekinbideen kopurua</i>		10
	<i>Euskal Diasporaren Eguna ezartzea</i>		1
3.3.4 Atzerriko euskal komunitatearentzako arreta	Atzerriko euskal komunitatearen arreta finkatzea: muturreko beharretan dauden familia unitateei laguntza ematea, Euskadira itzultzean aholkua eta laguntza ematea, eta atzerrian larrialdian edo hondamendiak gertatuz gero arreta ematea, betiere Idazkaritzaren eskumen eta baliabideen esparruan.	Adierazlea	Jomuga
	<i>Muturreko beharretan izanik laguntza jaso duten familia unitateen kopurua</i>		300

	<i>Artatu diren itzultze kasuen kopurua</i>	60
--	---	----

7. KUDEAKETA EREDUA

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren kudeaketa ereduak hiru zutabe ditu: (i) gobernantza eredu, Planaren egikaritze koordinatu eta koherentea ziurtatzen duena; (ii) jarraipen sistema, egindako jarduerak behatzen eta Planaren garapenean erdietsitako lorpenak identifikatzen lagunduko duena; eta (iii) Aurrekontua, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2020 arte mugiarazi behar dituen baliabide ekonomikoak argitzen dituen.

7.1. Gobernantza eredu

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren gobernantza ereduak lau elementu nagusi hauek ditu oinarri:

- Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea, abuztuaren 31ko 127/2007 Dekretuak arautua
- Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordea, martxoaren 18ko 52/2008 Dekretuak arautua
- Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea, apirilaren 11ko 234/1995 Dekretuak arautua
- Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua, ekainaren 28ko 96/2016 Dekretuak arautua

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren helburuak lortzeko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak garatzen duen lan horizontala denez, Jaurlaritzako beste arlo batzuen eta kanpoko eragileen lankidetzaren behar da. Horregatik, sailen eta sektore publikoaren eragin-trukea indartzen lagunduko duten mekanismoak izan behar dira, informazio truke bizkor eta eraginkorra eta esfortzuen koordinazio egokia bermatuta.

Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea da Idazkaritzak informatuko duen eta kanpoko erakunde harremanen esparruan garatutako jardueren eta erdietsitako lorpenen berri emango dion gobernantza elementua. Paraleloan, sailarteko komunikazio eta lankidetzaren informalararen mekanismoak indartzen ere ahaleginak egingo dira, sailekin etengabeko harremanak bultzatuaz, bai eta horien barruan kanpo harremanetarako profila duten espezialistak izendatuaz ere.

Idazkaritzaren batzordeburutzapean, Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordea da kanpo harremanetarako proiektuak komun jartzeko euskal herri erakunde guztien arteko elkarlan eta lankidetzarako organoa. Batzordearen helburua sinergiak aprobetxatzea eta euskal kanpo harreman koordinatu eta osoak aztertu, planifikatu, bultzatu eta sustatzea da. Batzorde honetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia da batzordeburu, eta Eusko Jaurlaritzako sailen eta foru aldundien, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetakoko udalen eta EUDELen ordezkariak dauka.

Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordearen helburu nagusiak Euskadik kanpoko euskal gizataldeekin dituen harremanak laguntzea eta areagotzea, esparru honetako erakunde ekintza koordinatzea eta euskal gizarte errealitate honetarantz sentsibilizatzen laguntzea dira. Aholku Batzordeak urtean behin egingo du ohiko bilera.

Azkenik, Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua, nazioarteko eremuan ezagutza eta esperientzia duten hainbat eremutako eragileek osatua (gizarte arloa, akademikoa, kulturarena, zientifiko-teknologikoa, ingurumenarena, enpresarena eta abar), Kanpo Harremanetarako Planaren misioa eta helburuak lortzen interesa duten guztien integrazioa ziurtatuaz gobernuaren kanpo harremanetan gizarte zibila inplikatzeke da.

7.2. Jarraipen sistema

Jarraipen sistemaren helburua KHPren betetze maila neurtu eta behatzea da, eta jarraipen prozesua errazten duen adierazleen aginte koadro batean oinarrituko da. Tresna honek 2018-2020 KHPren ekintzetarako zehaztu diren adierazleak, kasu bakoitzean egikaritzealdiaren amaieran lortu beharreko jomugak eta Planak irauten duten bitarteko plangintza edukiko ditu.

Horrela, barrutik eta sistematikoki neurtu ahal izango da Planaren aurrerapen maila, eta aurreikusitako ekintzen eta helburuen egikaritze egokirako behar diren doikuntzak egin ahal izango dira, bai eta etorkizuneko plangintzetara begira izan litezkeen desbideratzeak zuzentzeko behar direnak ere.

Halaber, KHPren jarraipen sistemaren osagai moduan, 2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren Azken Txostena egingo da. Txosten hori, globala bera, Planaren indarraldian lortutako emaitzak laburbilduko dituena eta jarritako helburuen eta ezarritako jomugaren betetze maila eta 2020rako BCEri egingo dion ekarpena aztertuko duena izango da, eta hurrengo Kanpo Harremanetarako Plana hasteko abiapuntutzat balioko du.

Ez da baztertzen, lehenago aipatutako jarraipen jardueren osagarri gisa, KHPren aldizkako ebaluazio independente bat, 2018-2020 aldian zehar erdietsitako lorpenak xehetasun handiagoz aztertuko dituen, garatzea.

7.3. Aurrekontua

Ekintza Plana egikaritzeko eskura dagoen aurrekontuak zortzi milioi euro jotzen du 2018 urterako, eta urterik urte % 1,1 gehitzea aurreikusten da 2019rako eta % 1,4 2020rako.



*Euskadi,
auzolana*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO